

11. ORDENANTZA FISKALA, HIRIGINTZAKO ZERBITZUENGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

I. OINARRIA ETA IZAERA

1. ARTIKULUA

Erandioko Udalak hirigintzako zerbitzuak emateagatik tasak ezarri eta eskatuko ditu Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz. Ordenantzaren eranskinean jasotzen dira aplikagarri diren tarifak.

II. ZERGAGAIA

2. ARTIKULUA

Udal administrazioak emandako honako zerbitzu tekniko-administratiboak dira tasaren zergagaia: hiri-ordenazioko planak, direnak direla, eta legezko araudi berezietan aurreikusitako bestelako hirigintza-ordenazioko tresnak Lurraren Legean eta Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetan aurreikusitako eraikitze hirigintza-arauetara eta polizi arauetara egokitzen diren ziurtatzeko burutzen diren zerbitzu guztiak.

III. SUBJEKTU PASIBOA

3. ARTIKULUA

a) Ondorengo hauek dira tasa honen subjektu pasibo zergadunak: obrak, edo eraikuntzak edo instalazioak egiten diren edo egin asmo diren higiezinetak jabe, edukitzaile edo errentari diren pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek 34. eta 35. artikuluek aipatzen dituen entitateak

b) Dena dela, zergadunaren ordezkari izango dira obren kontratista eta eraikitzaileak

4. ARTIKULUA

a) Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 40. eta 41. artikuluek aipatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek izango dute subjektu pasiboari dagozkion zerga-obligazioen gaineko betebeharrak solidarioak.

b) Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 42. artikuluan xedatuaren arabera, ondoko hauek izango dira erantzule subsidiario: elkarrekin administrazioaileak eta sindikoak, kiebra, lehiaketa, elkarrekin eta edozein entitateko kontuhartzaile zein kitatzaileak.

IV. ZERGA KUOTA

5. ARTIKULUA

Ordenantza honen eranskinean azaldutako tarifak aplikatuta finkatuko da zerga-kuota.

V. HOBARIAK

6. ARTIKULUA

- a) Zerga-kuotaren %50eko hobaria izango dute babes ofizialeko etxebizitzetako dagozkien eraikuntza, instalazio eta obretan
- b) Zerga-kuotaren %75eko hobaria izango dute etxebizitza sozialei dagozkien eraikuntza, instalazio eta obretan.

VI. SORTZAPENA

7. ARTIKULUA

- a) Zergagaitza eratzeko duen udal jarduerari hasiera ematean sortuko da tasa eta hori ordaindu beharra. Ondorio hauetarako, subjektu pasiboak hirigintzako lizentzia eskaria aurkeztu duen egunean emango da hasikotzat udal jarduerari hasiera ematean sortuko da tasa ordaindu beharra. Horrek ez du kentzen bestelako administrazio espedienteari hasiera ematea obra horiek baimentzeko, ala, baimengarriak ez badira, eraisteko.
- b) Dagokien lizentzia eskuratu barik obrei hasiera eman edo burutu egiten direnean, dena delako obra horiek baimengarriak diren ala ez egiaztatzeko udalaren jarduerari hasiera ematen zaion unean sortuko da tasa ordaindu beharra. Horrek ez du kentzen bestelako administrazio espedienteari hasiera ematea obra horiek baimentzeko, ala, baimengarriak ez badira, eraisteko.
- c) Ordaindu beharra sortuz gero, behar hori ez da aldatuko honako gorabeherak gertatuz ere: nahiz eskatutako lizentzia ezeztatu, nahiz aurkeztutako proiektua aldatzeko baldintzapean eman lizentzia nahiz, behin lizentzia eskuratuz gero, eskatzaileak uko egin edo bertan behar utzi

VII. DEKLARAZIOA

8. ARTIKULUA

Lizentzia bat eskuratu edo hirigintzako zerbitzuren bat lortu nahi duten pertsona interesdunek udaletxeko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dute bidezko den eskaria, dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsitako egiaztapenarekin batera. Hirigintzako zein zerbitzu mota eskatzen den, non kokatuko den, zein kostu aurreikusten den, zein neurri izango duen eta zertarako izango den zehaztu behar da eskarian.

VIII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

9. ARTIKULUA

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 196. artikuluan eta ondorengoetan xedatuaren arabera sailkatuko dira zergei buruzko arau-haustek, bai eta, hala dagokionean, bidezko diren zehapenak ezarri ere.

IX. XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo xedapenen bidez Tasaren araubidean gertatzen diren aldatetarako Ordenantza Fiskal honen aldatzea



eragingo dute, besterik gabe.

X. AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2008ko urriaren 29an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, eta 2009ko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu ondorioak, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.

ERANSKINA

TARIFAK

1.- Obra-lizentziak eta hirigintzako bestelako lizentziak ematea: eraikuntza, instalazio edo obraren benetako kostuaren %0,5; benetako kostua hura burutzeko kostua izango da.

2.- Poligonoen eta jarduketa-unitateen mugapena:

a) Ha baterainoko azalera	159,00 €
b) Ha batetik 3 Ha-rainoko azalera.....	238,50 €
c) 3 Ha-tik gorako azalera	318,00 €

3.- Planeamendu-aurrerakinako zerbitzuak:

Aurrerakinaren barru sartzen den azalera osorako bidezko den hirigintzako plan zehatzak baimendutakoaren arabera gehienez eraiki daitekeen m2 bakoitzeko 0,01 €

4.- Dena delako ordenazio planen aurrerakinak edo horien gaineko aldaketak:

Plan zehatzean baimendutako gehienezko eraikigarritasuneko m2 bakoitzeko 0,01 €

5.- Partzelazioa, birpartzelazioak, finken elkarketak eta finken zatiketak:

250 m2-ra arte	0,78 €
251 m2-tik 5000 m2-ra	0,04 €
5.001 m2-tik 10.000 m2-ra	0,03 €
10.001 m2-tik 25.000 m2-ra	0,02 €
25.001 m2-tik 50.000 m2-ra	0,02 €
50.001 m2-tik gorakoak.....	0,01 €
Gutxienekoa	179,00 €

Urbanizagarri ez diren lurren kasurako aurreko tarifen %50 aplikatuko da

6.- Urbanizazio proiektua: aurrekontuaren benetako kostu guztiaren %5.

7.- Aurri-egoerako deklarazioari buruzko txostena, interesdunak eskatua 318,00 €

TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK

1.- Izaera prekarioko lizentzien kuota zehatzean, %25eko gainkargua ezarriko zaie.

2.- Egindako obren ikuskaritza eskubideengatik azken kuotaren %10a eskuratuko du udalak, behin betiko kitapena dena delakoa izanda.

ERANDIO
ELIZATEKO UGALA



AYUNTAMIENTO DE LA ANTESIESTA DE ERANDIO
BIZKATA

OGASUNA ETA ONDAREA
PATRIMONIO

HACIENDA Y

3.- Beti ere, kitapenaren gutxienekoa 15,60 eurokoa izango da.